



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537
688661017



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

JANTOKIKO ARAU OROKORRAK

Jantokia eskolak eskaintzen duen zerbitzua da, eta borondatezkoa da. Jantokia erabiltzeak bere funtzionamendu arauak onartzea dakar ezinbestean.

Jantokiko arduraduna **Mentxu** da. Berarekin hitz egiteko edozein egunetan egin dezakezue, bisita zehaztu ondoren. Telefonoa: **94.437.84.09**. Zenbaki bera erabil dezakezue edozein mezu emateko.

Jantokiaren ordutegia, **13:00etatik 15:00etara** izango da, eta umeek 2 txandatan jango dute:

- ✓ **1. Txandan**, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek. 2 urtekoak 12:30etan hasiko dira.
- ✓ **2. Txandan**, 3., 4., 5. eta 6.ekoek.

Aukeratu daiteke jantokia erabiltzea egunero ala asteazkenetan izan ezik. Badago ere ekainean eta irailean erabiltzea ala ez aukeratzea.

Oso beterik dagoenez, ez da ziurtatzen **noizbehinkako bazkalkideentzako lekua**. Behar izatekotan, beti aurrez eskatu. Batzuetan, lekua izanda ere, ezin izango dute gelakoekin bazkaldu.

Jantokiko **erreziboa**, esan diguzuen Banku edo Kutxatik pasatuko da. Hark errezibo bat bueltatzekotan, eskolako zuzendaritzan ordaindu beharko duzue erreziboa gehi bueltatzeagatik banketxeak kobratzen duen zatia hilabetea bukatu baino lehen. Erreziboak bitan baino gehiagotan bueltatzekotan, zuzendaritzak familiarekin hitz egingo du, arazoa konpontzeko. Konpondu ezean, ezingo du jantokia erabili zorra kitatu arte.

Huts egiteak zuzendaritzan jakinaraziko dira bai pertsonalki bai telefonoz. Hutsegitea **5 egun jarraian** baino gehiagokoa denean, dagokion diruaren %50 itzuliko da. Abisua faltatzen den unean eman ez gero, hasierako 2 egunak ez dira itzuliko. **Dirua itzultzea** maiatzeko erreziboan egingo da. **Bekadunei ez zaie dirurik itzultzen**, bekak jantokiko gastuak betetzen dituelako.

Monitoreak eta sukaldeko langileak, enpresa gastronomikoak (EUREST) kontratataturik daude, eta honek, ikasleei **medikazioa** ematea debekatzen die.

Umeren batek **alergia edo elikagaiekiko intolerantziaren bat izatekotan**, menu berezia eska dezake. Horretarako, aurkeztu behar ditu gaurkotutako mediku-ziurtagiria eta zuzendaritzan emango diogun EJko eranskina behar bezala beteta. Mediku-ziurtagiria urtero aurkeztu behar da.

Ume batek epe batean **ez badu ezertxo ere jaten**, gurasoekin hitz egingo dugu, arazoa bideratzeko. Hala ere, jan barik jarraitzen badu, ezin izango du jantokia erabili.

Zuen seme-alabak eskolatik ateratzen badituzue: **1. txandan jaten badute ezin izango dira itzuli. 2. txandakoak baldin badira itzuli ahal izango dira 14:00etan baino lehenago egiten badute.**

